

# Lasai eta arazorik gabe igaro da bozketa eguna Hego Afrikan

*Mandela botoa eman eta erretiratu egin da bizitza politikotik*

Agentziak / Pretoria

Legebiltzarra eta Gobernua eta probintzietako agintariak aukeratzeko hauteskundeak egin ziren atzo Hego Afrikan. Arazo handirik gabe, lasai igaro zen boz-

keta eguna, iturri ofizialek emandako azalpenen arabera. Nolanahi ere, Kwazulu-Natal probintzian zenbait istilu izan ziren eta bi pertsona hil ziren. Iragarpen guztien arabera, ANCko Thabo Mbeki izango da hurrengo lehendakaria.

HEMEZORTZI milioi lagunek zuten botoa emateko eskubidea, eta parte hartzea %90 ingurukoa izatea espero zen. Jendea goiz-goizetik hasi zen botoa ematen: iturri ofizialen arabera, berehala sortu ziren ilarak hauteslekuetan.

Agintariak segurtasun neurri handiak hartu zituzten, iskanbilen beldur, baina eguna lasaia izan zen. Dena dela, Kwazulu-Natal probintzian bi liskarraldi izan ziren, eta haietako bakoitzean pertsona bat hil zen. Borroketa-ko bat ANC Afrikar Kongresu Nazionalako eta Mugimendu Demokratiko Batuko jarraitzaileen artekoa izan zen —ANCko eta Alderdi Nazionalako disidenteek sortutako alderdia da Mugimendu Demokratiko Batua—.

## Mandelaren agurra

Lekukoek emandako azalpenen arabera, toki askotan ilara handiak sortu ziren, eta oso astiro joan zen botoa emateko prozesua. 1994ko bozketetan, aurreneko hauteskunde demokratikoetan, arazo bera izan zuten.

Botoa ematen lehenengoak alderdi nagusietako buruzagiak izan ziren, eta guztien ar-

## Luzapena

Goizeko 07:00etan ireki zituzten hauteslekuak eta iluntzeko 21:00etan itxi; beraz, 14 orduz egon ziren zabalik. Hala ere, jendetza handiak parte hartu zuen, eta ilara luzeak sortu ziren. Ondorioz, botoa emateko epea luzatzeko eskatu zuen ANCk. Gainera, segurtasun neurri handiak hartu zituzten agintariak: 100.000 polizia eta soldadu jarri zituzten hauteslekuak zaintzen. Halaber, 220.000 pertsona aritu ziren bozketak ikuskatzen.

tean aurrenekoa, Nelson Mandela lehendakari eta *apartheid*-aren aurkako borrokaren buruzagia. Egun garrantzitsua izan zen atzokoa Mandelarentzat, botoa ematearekin bat agur esan baitzion bizitza politikoa. «Lasai erretira naiteke», esan zuen buruzagi hego afrikarrak.

Botoa eman eta berehala alde egin zuen Mandelak, eta inork ez daki zehatz nora joan den. Hain zuzen ere, horixe zen haren ametsa: atsedean hartzeko leku lasai batera joatea.

Nelson Mandelak 80 urte ditu, eta ia hiru hamarkada egin zituen espetxean. Urte horietan guztietan, bera izan zen ANCren eta *apartheid*-aren aurkako borrokaren gidaria. 1990ean ateratu zuten kartzelatik, eta Hego Afrikako erregimen trantsizioan giltzarri izan zen. Esaten dute 1994ko hauteskundeetan ez zuela nahi Lehendakari izan, baina bestela ANC barruan arazoak sortitezkeelako onartu zuela.

Oraingo bozketotan Thabo Mbeki «Mandelaren oinordekoa» izan da ANCren hautagaia, eta inork ez du zalantzan jartzen bera izango dela garailea. Hain zuzen ere, du da honako hau zen: ANCk botoen hiru heren lortuko zituenetz.

1994ko hauteskundeetan botoen %60 eskuratu zituen ANCk, eta oraingoetan emaitzak hobetuko dituztela espero da. Izan ere, arazo ekonomiko larriak dituzten arren, beltzen gehiengoak pozik dago Mandelaren agintaldiarekin. Aldiz, zuriak dira kritikoenak: ekonomiak okerrera egin duela esaten dute.

Hain justu, horixe izango da Mbekiren erroka nagusia: langabezia txikitu eta ondasunak hobeto banatzea.



ODD ANDERSEN / EPA

Nelson Mandela, atzo, botoa eman ostean.

## alderdiak

## Lehia handirik ez

Berrogeita hamar alderdik parte hartu dute Hego Afrikako Legebiltzarrerako eta probintzietako gobernuetarako hauteskundeetan. Hala ere, bost dira nagusiak, eta haien artean Afrikar Kongresu Nazionalak (ANC) bakarrik du irabazteko aukera.

**Afrikar Kongresu Nazionala (ANC)** • *Apartheid*-aren aurkako borrokan aitzindari izan zen alderdia, Nelson Mandelak gidatuta. Beltzen gehiengoak itxaropen handia du ANCkoengan. Hain zuzen ere, boto guztien bi heren lortzea da alderdi horren erroka.

**Alderdi Nazional Berria** • *Apartheid*-aren berme izan zen Alderdi Nazionalaren oinordekoa. Zuriak dira boto-emaille gehienak, baina hindu eta *koloredunak* ere babesten dute —esklabo malaysiarren ondorengoak dira *koloredunak*—. Botoen %8 espero dute.

**Alderdi Demokratikoa** • Zuriaren alderdia da, baina zentro ezkerrekoa. Hauteskundeetako ezustekoa izatea espero da.

**Inkhata** • Beltz zuluaren alderdia da, eta urte askotan oso harreman txarra izan du ANCekin. Orain elkarlanean jarduten dute, eta Inkhatako buruzagia gobernu berrian Barne ministro izango da seguruenera.

## laburrean

I R A K

### ■ Unscomen Bagdadeko laborategia kentzeko eskatu du Butlerrek

RICHARD BUTLERREK, Unscomen Desarmamendu Nazio Batuen Batzorde Bereziko lehendakariak, batzordearen Bagdadeko laborategia kendu egin behar dela esan zuen atzo. Butlerrek idatzi bat eman die Segurtasun Kontseiluko 15 kideei, eta hor eskatu die aditu talde bat bidaltzeko Bagdadera egoera aztertzeko eta lan batzuk egiteko: gai kimikoak eta biologikoak suntsitu, eta mostaza gasaren gaiak eta han dagoen ekipo osoa kendu. Butlerren arabera, hobe da Irakeko Gobernuaren laguntza izatea gai batzuk handik ateratzeko, beste

batzuk suntsitzeko eta bakarren batzuk Irakeko laborategietan uzteko.

K O L O N B I A

### ■ ELNrekin hartu-eman guztiak eten ditu Pastranak

ANDRES PASTRANA Kolonbiako lehendakariak hartu-eman guztiak eten ditu Askapen Nazionalerako Armadarekin (ELN). Hala jakinarazi die Pastranak berak Eliza Katolikoari eta nazioarteko zenbait gobernuri. Lehendakariak erabakia arrazoitu zuen esanez ELN «talde terrorista» dela. Gainera, Pastranak esan zuen gerrillak 56 herritar bahituak dituela joan den igandean Caliko eliza batera indarrez sartu zenetik. Gerrillariak 140 lagun atxiki zituzten hasieran,

baina 84 askatu zituzten bahiketaren egun berean.

E E B B

### ■ Baliteke bederatzi lagun hil izana Little Rocken hegazkin bat behera erorita

139 BIDAIAIARI eta sei tripulante zermatzen American Airlines konpainiaren MD-80 hegazkin batek istripua izan zuen atzo Little Rockeko aireportuan, Arkansasen. Salbamendu lanean aritu zirenen arabera, baliteke bederatzi lagun hil izana eta 80 zauritu. Dallastik Little Rockera zihoan hegazkina, eta gaueko 22:00etan (goizaldeko 05:00ak Euskal Herrian) lurreratu behar zuen aireportuan. Ekaitz bortitz batek astindu zuen hiria, eta bi orduz

egon zen hegazkina aireportuko aire eremuan hegan. Erregairik gabe gertatzen saiatu zen lurreratzen, baina saioan pistatik ateratu zen eta hainbat zatitan txikitu. Su hartu zuten zatiek.

K A X M I R

### ■ Herritarrek ihes egin dute India eta Pakistanen arteko borrokengatik

INDIAKO hegazkinek zortzigarren egunez jarraian bonbardatu zuten atzo Kaxmir, ustez «musulman gerrillariak» gotortuta dauden guneetatik bidaltzeko. Kaxmirko zibilek, berriz, herrietatik alde egin dute, Indiako eta Pakistango armaden arteko borroketatik ihesi. Iturri batzuen arabera, herri osoak geratu dira hutsik lurralde horretan.